

Territorios

Lehen aldien zirrara

Guardar Regala esta noticia WhatsApp Facebook X Telegram 2 Añádenos en Google



'Ezagutu zintudanean' liburuaren azala.



Iraitz Urkulo
31/07/2026 a las 21:02h.

'Ezagutu zintudanean' nobelak bere istoriotik harago doan meritua du. Gazte literaturako lehen eleberri erromantikoa dugu euskaraz. Hala adierazi zuten, behintzat, Enara Garmendia autoreak eta Erein argitaletxearen editore Uxue Razquinek liburuaren aurkezpen-egunean. Zerbait anekdotikoa irudi lezake, baina badu bere garrantzia. Azken batean, euskaraz dena egin liteke, baina ez dugu egiten. Nobela erromantikoa ez dago euskal literaturan presentzia nabarmena duten literatura generoen artean, neurri batean tradizionalki halako istorioek prestigio eskasa izan dutelako eta, horregatik, gaur egun ere bigarren mailakotzat jotzen direlako sarritan. Alde horretatik, 'Ezagutu zintudanean' zoriarekin salbuespen bat da, erabat beharrezkoa, euskal literaturak genero horretan duen hutsune itzela murriztera datorrena.

Eleberri honek azken urteotan munduan barrena milioika irakurle gazte konkistatu dituzten nerabeen arteko maitasun-istorioen lorratzari jarraitzen dio, noski. Halakoekin gozatzen duenak espero dituen osagai guztiak topatuko ditu 'Ezagutu zintudanean' lanean: adiskidetasuna, emozio biziak, lehen amodioa, zalantzak, ilusioa... eta pertsonaien bizitza hankaz gora jarriko duen egonaldia Beireko udalekuetan (Nafarroa).

'Ezagutu zintudanean'
Enara Garmendia. Erein, 2026. 213 orrialde.

Nobelako protagonistak June eta Markel dira. Junek hamasei urte ditu, eta Markelek, hamabost. Udalekuetan ezagutuko dute elkar, eta txango, jolas, hizketaldi eta barre artean, maitemindu egingo dira eta lehen aldi asko biziko dituzte elkarrekin. Eleberriak ederto transmititzen du mundua, maitasuna eta norbere burua deskubritzen ari denaren zirrara, nerabezaroan baino posible ez dirudien intentsitate berarekin.

Enara Garmendiak obra honetan genero rol tradizionalak iraultzea erabaki du, eta nik alderdi interesgarrienetakoa deritzot. Juneri, Markel baino urtebete helduagoa izateaz aparte, esperientzia handiagoa hautesmaten zaio udalekuetan; baita bizitzan ere, oro har. Neskak jenio bizia du, karisma itzela eta oso nortasun erakargarria. Markelek, aldiz, ageriko autoestimu falta du, eta ezkututzen ahalegintzen ez den izaera hauskorragoa. Horixe da, hain zuzen, mutilaren indargunea: hasierako zaurgarritasuna bere dohain nagusia bihurtzen da azkenerako. Nire iritziz, Enara Garmendiak bete-betean asmatu du maskulinitatearen irudi ezohiko hau eskainita, askoz zintzoagoa eta errealagoa, maskararik gabea.

Ildo beretik, dibertsitatea oso modu naturalean irudikatzen da eleberrian. Noak, Juneren adiskide minak, amodio-harremana du beste neska batekin, baina alderdi hori pertsonaiaren parte da, besterik ez. Beste literatura obra askotan ez bezala, honakoan ez du gatazkarik eragiten, eta ez da mezurik aldarrikatzeko erabili. Izan ere, apenas du garrantzirik istorioan, kontakizunean normaltasun osoz aipatzen den datu bat baino ez da.

June eta Markelen arteko harremanak lehen maitasun-istorioaren intentsitatea du. Sentimenduek gaindituta, horiek kontrolatu ezinik dabilta biak. Maitatzen ikasten ari diren bi nerabeen artean espero izatekoa den moduan, badira haien arteko gaizki-ulertuak, zalantzak eta une dramatiko ugari. Sekula ez, ordea, dinamika toxiko edo abusuzkorik. Amodio-istorio sanoa da beraiena, elkarrekiko errespetua, enpatia eta maitasuna oinarri dituen. Alde horretatik, eleberriak harreman-eredu oso positiboa eskaintzen die irakurle gazteei.

Traman pisu handia duten beste bi alderdi sexua eta norbere desiraren deskubrimendua dira. Esan gabe doa 'Ezagutu zintudanean' ez dela batere narrazio lotsatia. Juneren eta Markelen arteko enkontru intimoak oso modu errealistan narratuta daude, naturaltasun erabatekoaz. Baina inor ez dadila okertu: alferrik dabil liburu honetara morbo bila hurbiltzen dena. Hau ez da literatura erotikoa. Erreferentzia sexualak zentsuratu gabe ere, idazleak ondo gogoan izan ditu une oro bere irakurle gazteak, eta pasarte gorienetan lan ederra egin du hitzak neurtzen eta kontakteta mailan orekari eusten.

Gainera, Enara Garmendiaren estiloa guztiz bat dator istorioarekin. Estilo zuzena eta hizkera argia eta espontaneoak darabiltza atal arinak eta erritmo bizikoak osatzeko. Elementu horiek guztiak ezin gustagarriagoa egiten dute gazte eleberri hau irakurtzearen esperientzia. Kapitulu bat bestearen atzetik irensteko gogoan pizten duten liburu horietakoa dugu, autoreak ez baititu inoiz irakurleengan piztutako jakin-minari apaltzen uzten. Eta hori da, zalantzarik gabe, nobelaren bertuteetako bat.

'Ezagutu zintudanean' emozioak, ilusioak eta bizi-gogoak gainezka egiten duten gazte eleberri bat da. Enara Garmendiak zoragarriki atzeman du den-dena posible dirudien eta esperientzia berri bakoitzari sekulako grinaz aurre egiten zaion bizitzaren aroari: nerabezaroaren amaiera. Oso irakurgai entretenitua eta adiktiboa sortzeaz gain, euskarazko gazte literaturan esploratu gabeko bide bat zabaldu digu. Horregatik, nahi nuke berea salbuespen bakarra ez izatea, gure hizkuntzan idatzitako eleberri erromantiko askotako lehena baizik.

Temas Euskera

2 comentarios

Reportar un error

Lo más leído

- | | |
|---|---|
| 1. Una pelea entre dos mujeres originó los graves disturbios de la última noche de Aste Nagusia | 6. Una mujer mata a un hombre en Valencia al creer que coqueteaba con su ex |
| 2. En directo, Celta-Athletic | 7. Simón explica el enfado de la plantilla: «No es por las entradas, es una bola de cuatro años» |
| 3. Despedido por subir al Serantes en bici cuando estaba de baja por el codo | 8. La emotiva confesión del líder de M. Clan en pleno macro concierto en Abandoibarra: «Nos llena el corazón estar aquí» |
| 4. El Athletic pide a la Vizcaína que reduzca sus pases en San Mamés | 9. Aquella Ordizia donde 'Kubati' ejecutó a la «traidora» 'Yoyes' delante de su hijo |
| 5. Fran Rivera, sobre la relación de Cayetano con Tamara Gorro: «Le hemos avisado, ya es mayor, él sabrá» | 10. «A currar», «qué poco te ha durado el braguetazo»... La exnovia de Nico Williams denuncia comentarios de «odio» y deja las redes sociales |